

Diru iturriak

Gure proiektuaren muntaia eta produkzioa sustatzeko diru-iturriak behar ditugu, eta gure proiektuan garrantzitsuena, ikastetxeko proiektua denez, zentruak emandako diru laguntza da, Don Bosko formakuntza zentruak emandakoa. Hasteko, jasotako diru horrekin prototipoa muntatzeko materiala erosiko dugu.

Behin prototipoa muntatuta dagoela, beste diru iturri batzuk lortuko ditugu gure produktuaren propaganda eginez, esate baterako, teknologia sustatzen duten ekitaldietan, adibidez, Bilboko Maker Faire-an edo Malagan egindako Malakabot izenekoa. Beste alternatiba bat eta orain arte erabilitakoa, zuzenean gure erosleei produktua eta zerbitzuak saltzea da.

Proiektuaren diru-iturriak finkatzeko hiru atal nagusi azertu ditugu:

1. Gure proiektuan bi diru-sarrera mota egongo dira:
 - a. Aldi baterakoa
 - b. Produktua saldu ondoren zerbitzuen ordainketa

2. Diru-sartze modu desberdinak egongo dira gure proiektuan:
 - a. Produktuen salmenta, gure kasuan Like kontagailua
 - b. Zerbitzu baten erabilpenagatik ordainketa, gure kasuan web-orrialdea

3. Prezioa finkatzeko mekanismo bat erabili dugu:
 - a. Bezero mota eta salduko dugun produktuaren inguruneari behatuz, prezio eskuragarri bat jarriko diogu, baina ez da izango finkoa, aldakorra baizik.

